# Pentekoste jaiak 2003



# Bergaran

BERGARAKO UDALA

**Azalaren egilea:** Imanol Cordovilla Sanchez.

**Diseinua eta inpresioa:** Gertu Inprimategia, Oñati

# Agurra



Amaierara iristen ari da legealdia. Ziur nago lau urte hauetan legealdi hau osatu duten zinegotzi guztiak Bergarako herriarendako onena egiten saiatu direla. Lerro hauek aprobetxatu nahi ditut egin duten lanarengatik publikoaren aurrean eskerrak emateko.

2003. urteak Bergarako hiru ospetsurekin zerikusia duten 3 gertakari handien urteurrena dakar: Ignazio Irala Aumategiren jaiotzaren 350 urte (frai Jose); Koldo Eleizalde Breñosaren jaiotzaren 125 urte; eta Euskal Herriko "Txistularien Aitona" izan zen Boni Laskurain kuttunaren heriotzaren 25. urteurrena. Egitarau honetan pertsonai horien historia eta ezaugarriak garatzen dira laburlabur. Udalak beharrezko tresnak jarri ditu martxan urte honetan zehar bakoitzaren inguruan ekitaldi batzuk ospatzeko.

Amaitzeko, eta programa hau posible egiten duten guztiei eskerrak eman eta gero, agur berezi bat bidali nahi diet arrazoiren batengatik gurekin batera Pazko jai hauek ospatuko ez dituzten guztiei.

Eskerrik asko guztiei eta ondo pasa jaiak!

**Zorionak!**

Una legislatura que llega a su fin. Estoy seguro de que a lo largo de estos cuatro años, todos y cada uno de los concejales que han compuesto esta legislatura, han propuesto y procurado llevar a cabo lo mejor para el pueblo de Bergara. Quiero aprovechar estas líneas para agradecerles públicamente la labor efectuada.

El año 2003 conlleva el aniversario de 3 grandes efemérides, que se cumplen con otros tres grandes insignes bergareses: 350 años del nacimiento de Ignacio de Irala y Aumategui *"Fr. José de Jesús y María"*; 125 años del nacimiento de Koldo Eleizalde y Breñosa y el 25 aniversario de la muerte de nuestro entrañable Boni Laskurain, quien fuera *"Aitona de los Txistularis"* del País Vasco. En este programa se desarrolla un poco la historia y perfil de cada uno de los mismos. El Ayuntamiento ha puesto en marcha los mecanismos necesarios, para llevar a cabo a lo largo del año, los actos correspondientes en torno a cada uno de los mismos.

Para finalizar y tras dejar patente mi sincero agradecimiento a todos los que hacen posible este programa, quiero enviar un recuerdo especial a todos aquellos que, por uno u otro motivo, no pueden disfrutar con nosotros de estas Pascuas.

¡Gracias a todos y que disfrutéis de unas felices fiestas!

**Zorionak!**

**VICTORIANO GALLASTEGI**
Bergarako Alkatea




*Bergarako Udaleko Jai Batzordeak antolatutako festa eta ekintzen egitarau ofiziala*

*Programa oficial de actos y festejos organizados por la Comisión de festejos del Ayuntamiento de Bergara*

# Ekainak 1, igandea

**XXX. HAURREN EUSKAL JAIA, Aranzadi ikastolako, Mariaren Lagundia ikastolako eta San Martin herri eskolako dantza taldeek, Gazte alai dantza taldeak eta Xamatz dantza taldeak antolatuta.**

XXX FIESTA VASCA INFANTIL
organizada por los grupos de baile de la ikastola Aranzadi, la ikastola Mariaren Lagundia y el Colegio público San Martin y los grupos Gazte Alai y Xamatz.



1 de Junio, domingo



# Ekainak 3, asteartea



19:30

**Historiari buruzko HITZALDIA.** "Los niños exiliados de la guerra", Alonso Carballések emana, **Miguel Altuna institutuan.**

CONFERENCIA "*Los niños exiliados de la guerra*"
*por Alonso Carballés.* Instituto Miguel Altuna.

3 de Junio, martes

# Ekainak 5, osteguna

## 18:00




**"Bergara Hiria" XIX. argazki lehiaketako argazkien ERAKUSKETA zabalduko da Kultura Etxean, Pol-Pol argazki taldeak antolatua. Ekainaren 15era arte zabalik egongo da.**

Inauguración de la EXPOSICIÓN de fotografías del XIX Concurso de Fotografía "Bergara Hiria" organizado por Pol-Pol argazki taldea, en la Casa de Cultura. La exposición permanecerá abierta hasta el día 15, inclusive.



## 19:00

**Iñaki Aranaren** "Burdina: errementariak eta perratzaileak" **Bergarako Udalak argitaratutako LIBURUAREN AURKEZPENA, Udaletxeko areto nagusian.**

PRESENTACION DEL LIBRO *"Burdina: errementariak eta perratzaileak"* de Iñaki Arana, publicado por el Ayuntamiento de Bergara, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento.



# Ekainak 6, ostirala

## 20:00

**Jaiei hasiera emango zaie, etxafleru jaurtiketa eta BITORIANATXOren JAITSIERArekin.**

-Comienzo de las fiestas con el lanzamiento del chupinazo y la BAJADA DE BITORIANATXO.



**- Jarraian,** Udal Musika Bandarekin **KALEJIRA, hiriguneko kaleetan.**

**A continuación** PASACALLE amenizado por la *Banda Municipal de Música.*

**- Ondoren:**

- **Matxiategin BARRAKAK irekitzea.**
- **Bideberri aldeko TXOZNAK irekitzea.**

**A continuación:**

- Apertura de la FERIA DE ATRACCIONES en Matxiategi.
- Apertura de las CHOZNAS instaladas en Bideberri.

## 20:30-21:30

**Jardun euskara elkarteko TRIKITILARIEN KALEJIRA.**

PASACALLE del grupo de trikitilaris de Jardun.

# Ekainak 6, ostirala

## 22:30

**Luar Na Lubre taldearen KONTZERTUA, Galiziako folk tradizioarekin, ganbara musikarekin eta Rosa Cedrón-en ahotsarekin osatua, Udal Pilotalekuan.**



CONCIERTO *del grupo Luar Na Lubre que combina la tradición folk de Galicia, con la música de cámara y la voz de Rosa Cedrón, en el frontón municipal.*

## 24:00

**ROCK KONTZERTUA Bideberrin,** Niños mutantes, Painful, Fevers **eta** Dixie 900 **taldeekin.**

CONCIERTO ROCK en Bideberri con los grupos *Niños mutantes, Painful, Fevers* y *Dixie 900.*




## 24:00

**DISKO FESTA, Euskadi Gaztea irratiaren jaialdi ikuskizuna, Joseina Etxeberria DJarekin, San Martin plazan.**

DISKO FESTA , espectáculo festivo de la emisora musical Euskadi Gaztea con el DJ Joseina Etxeberria, en la plaza San Martín.

6 de Junio, viernes



# Ekainak 7, larunbata

## 9:00

**XXIII. HAUR eta GAZTEEN PLASTIKA SARIKETA. Beart elkarteak antolatua, bere egoitzan (Bolu kalea, 49).**



XXIII CONCURSO DE PLASTICA, al aire libre, PARA NIÑOS/AS y JÓVENES, organizado por Beart elkartea, en su sede (Bolu kalea, 49).

## 10:00

**DIANA. Auzoetako ibilera egin ondoren, San Martin plazan elkartuko dira Udal Txistulari Banda, Lizarrako gaita-joleak eta Iosu eta Iokin soinujoelak.**

**Irteerak**

- **Bolutik,** Udal Txistulari Banda,
- **Oxirondotik,** Lizarrako gaita-joleak **eta**
- **Labegaraietatik,** Iosu eta Iokin soinujoleak.

DIANA, con salida de diferentes barrios y concentración en la plaza San Martín:

Salida

- La *Banda Municipal de Txistularis* desde, Bolu
- *Los Gaiteros de Estella* desde Oxirondo y

Los trikitilaris *Iosu eta Iokin* desde Labegaraieta.

7 de Junio, sabado

## Ondoren

**MIZPIRUALDERA BISITA egingo dute gaita-joleek eta txistulariek.**

Los gaiteros y txistularis visitarán la residencia MIZPIRUALDE.

## 11:30

**Elkarteen arteko SUKALDARITZA LEHIAKETA. Bakailoa pil-pilean prestatuko dute elkarteek San Martin plazan, trikitilariek alaituta.**



CONCURSO GASTRONÓMICO de bacalao al pil-pil entre las diferentes sociedades, en la plaza San Martin, amenizado por trikitilaris.

## 13:00

**XXIII. HAUR eta GAZTEEN PLASTIKA SARIKETAKO SARI BANAKETA, Beart arte elkartearen egoitzan. (Bolu kalea, 49).**

ENTREGA DE PREMIOS del XXIII CONCURSO DE PLÁSTICA AL AIRE LIBRE, PARA NIÑOS y JÓVENES, en la sede de Beart elkartea (Bolu kalea, 49).





## 16:00

**GRAFFITI ERAKUSTALDIA, Bideberrin.**

EXHIBICION DE GRAFFITIS en Bideberri.



## 16:30

**PILOTA PARTIDU interesgarriak Udal Pilotalekuan.**

Interesantes PARTIDOS DE PELOTA en el Frontón Municipal.

## 16:30

Compañía La Máscara **taldearen** Jordi Carlitos
**KALE ANTZERKIA, Xabier Maria Munibe plazan, Udaletxearen inguruko plaza berrian.**

TEATRO DE CALLE con la obra *Jordi Carlitos* por la *Compañía La Máscara, en la plaza Xabier Maria Munibe.*

## 17:45

**BONBA JAPONIARRAK haurrentzat San Martin plazan**

*BOMBAS JAPONESAS en la plaza San Martín.*

## 18:00

**ERREKORTADOREEN EUSKADIKO IV. TXAPELKETA, Zezen plazan. Elgoibarko dultzaineroek girotuko dute ekitaldia.**

IV CAMPEONATO DE RECORTADORES de Euskadi, en la plaza de toros. Los dulzaineros de Elgoibar amenizarán el espectáculo.

## 18:30



**ERRALDOIEN, KILIKIEN ETA BURUHANDIEN KONPARTSAREN KALEJIRA, Udal Txistulari Bandak eta Lizarrako gaita-joleak lagunduta.**
Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, Ramon Maria Lili kalea, Ibargarai hiribidea, Fraiskozuri plaza, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin plaza.

PASACALLE DE LA COMPARSA DE GIGANTES, KILIKIS Y CABEZUDOS acompañados por la Banda Municipal de Txistularis de Bergara y los Gaiteros de Estella. Recorrido: Plaza San Martín, calle Bidekurutzeta, calle Ramon Maria Lili, avenida Ibargarai, plaza Fraiskozuri, paseo Irizar, Barrenkalea y plaza San Martín.







## 22:30

**ROCK KONTZERTUA, Bideberrin,** Cool jerks, RIP KC, Bumer **eta** Black sheeps **taldeekin**.

CONCIERTO ROCK en Bideberri, con los grupos *Cool jerks, RIP KC, Bumer y Black sheeps.*




## 23:30

**CAMP DANTZALDIA**
**San Martin plazan,** Nueva Etapa **Orkestarekin**

BAILE CAMP con la orquesta *Nueva Etapa*, en la plaza San Martín.



## 8:00

**SOKAMUTURRA San Martin plazan, Elgoibarko dultzaineroek animatuta.**

SOKAMUTURRA en la plaza San Martin, amenizado por los dulzaineros de Elgoibar.

## Ondoren

Elgoibarko dultzaineroen **KALEJIRA, San Martin plazatik zezen plazara.**

PASACALLE de los dulzaineros de Elgoibar, de la plaza San Martin a la plaza de toros.

## 9:00

**Lehen ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Ramon Maria Lili kalea eta Zezen plaza.**
**Segidan ENBOLATUAK.**



Primer ENCIERRO. Recorrido: Salida del garaje del Restaurante Gaspar, calle Barrenkalea, plaza San Martin, calle Bidekurutzeta, calle Ramon Maria Lili y Plaza de toros. Seguidamente EMBOLADOS.





Ekainak 8, Pentekoste igandea

## Ondoren

**ALBORADA,** Udal Txistulari Banda**rekin.**

ALBORADA con la Banda *de Txistularis.*



## 10:00



**TXIRRINDULARI LASTERKETA: 23 urtez azpikoentzat eta elitekoentzat, Lehendakari txapelketa "LXVIII. Pentekoste Saria",** Lokatza ziklismo eskola**k antolatuta. San Lorentzo auzotik irteera. (Ibilbidea esku programan).**

CARRERA CICLISTA: "LXVIII Gran Premio Pentecostes" para menores de 23 años y para la categoria de élite, organizado por *Lokatza ziklismo eskola.* Salida desde el barrio San Lorenzo. (Ver recorrido en el programa de mano).



8 de Junio, domingo de Pentecostes

**11:00**

**MEZA NAGUSIA San Pedro elizan, Udal korporazioa partaide dela, eta Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak lagunduta.**

MISA SOLEMNE en la *Iglesia Parroquial de San Pedro*, con la participación de la *Corporación Municipal* y el acompañamiento de la *Banda Municipal de Música* y la *Banda Municipal de Txistularis*.

**11:30**

**Hamabost urtez azpiko bikote gazteentzako XXVI. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETAren kanporaketak, San Martin plazan. Lehenengo 12 bikoteak sailkatuko dira.**

Eliminatorias del XXVI CAMPEONATO DE BAILE AL SUELTO para parejas menores de quince años, en la plaza San Martin. Se clasificarán las 12 primeras parejas.



**12:30**

Udal Musika Bandaren Pentekoste igandeko KONTZERTU NAGUSIA **Espoloian.**

CONCIERTO de Pascua de Pentecostes de la banda Municipal de Música en el Espolón.





Ekainak 8, Pentekoste igandea

Egitaraua

| | | |
|---|---|---|
| "LAGARTIJILLA" | Pasodoblea | J. Martín |
| "LA FORZA DEL DESTINO" | Obertura | G. Verdi |
| "GERO BAT GAURDANIK" | 2003ko Korrika | B. Mendizábal |
| | Instrumentazioa: | A. Gz. Chirlaque |
| "LA DOLORES" | Jota handia | T. Bretón |
| "NOSTRADAMUS" | Fantasia | O. M. Schwarz |
| "TAKE THE A-TRAIN" | Big banda | B. Strayhorn |

*Zuzendaria*: Alfredo Gz. Chirlaque

**13:00**

**Tuterako Jota Eskolako taldearen kantaldia, herriko kaleetan zehar.**

Actuación del grupo de la Escuela de Jotas de Tudela, por las calles de la villa.

**17:30**

**San Martin plazatik zezen plazaraino KALEJIRA, Zumarragako** Musika Banda **eta Elgoibarko** dultzaineroek **lagunduta. Parte-hartzaileak: mandakoak, agoaziltxoak, agintariak eta herriko zaletuen koadrilak. Geldialdia egingo dute Lasa zaharrean.**

PASACALLE desde la plaza San Martin hasta la plaza de toros, amenizado por la Banda de Música de Zumarraga y los dulzaineros de Elgoibar. Participarán en el desfile la mulilla, el alguacilillo, autoridades y cuadrillas de aficionados locales, con breve avituallamiento en el antiguo Lasa.



8 de Junio, domingo de Pentecostes

## 17:30

**Hamabost urtez azpiko bikoteentzako XXVI. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETA San Martin plazan,** Udal Txistulari Bandak **eta trikitilariek lagunduta.**

XXVI CAMPEONATO DE EUSKADI DE BAILE AL SUELTO para parejas menores de quince años, en la plaza San Martin, acompañado por triktilaris y la *Banda Municipal de Txistularis.*

## 18:00

**ZEZEN FESTA, Salamancako López Chavez-en ganaduekin,** Betizuk —zezen zaleen elkarteak**— antolatua. Nobilleroak: Ekaitz Rodriguez errenteriarra eta Anton Oses, naparra. Burtzikaria: Igor Etxaniz "Kinttela", azpeitiarra.** Musika Bandak **eta** dultzaineroek **alaituko dute ekitaldi hau.**



FESTEJO TAURINO con la ganadería López Chavez de Salamanca, organizado por la asociación *Betizu*. Novilleros: Ekaitz Rodriguez de Renteria y Anton Oses de Navarra. Rejoneador: Igor Etxaniz "Kinttela", de Azpeitia. La Banda de Música y los dulzaineros amenizarán el festejo.





Ekainak 8, Pentekoste igandea

## Ondoren

Dultzaineroek **herriko kaleak alaituko dituzte.**

Pasacalle con los *dulzaineros.*

## 19:30

Trapu zaharra **antzerki taldeak** Elvis joan adi!!! **KALE ANTZERKIA eskainiko du Xabier Maria Munibe plazan (Udaletxearen ondoko plazan).**



TEATRO DE CALLE con la representación de la obra *Elvis joan adi!!!* por el grupo de teatro *Trapu zaharra*, en la plaza *Xabier Maria Munibe.*

## 23:00

Joselu Anaiekin **ERROMERIA, San Martin plazan.**

ROMERIA a cargo del grupo Joselu Anaiak.



8 de Junio, domingo de Pentecostes




## 8:30

**KALEJIRA, 25 urtez jarraian jaiak alaitzen dabilen** Los Incansables **txarangarekin, entzierroaren ibilbidetik, zezen plazaraino.**

PASACALLE por la txaranga Los Incansables, que lleva 25 años amenizando las fiestas, por el recorrido del encierro, hasta la plaza de toros.

## 9:00



**Bigarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili kalea eta Zezen plaza.**
**Segidan ENBOLATUAK,** Los Incansables **txarangak alaituta.**

Segundo ENCIERRO. Recorrido: Salida del garaje del Restaurante Gaspar, Barrenkalea, San Martin plaza, calle Bidekurutzeta, calle Ramon Mª Lili y Plaza de toros. Seguidamente EMBOLADOS amenizados por la la txaranga *Los Incansables*.

## 10:30

Ollagorra elkarteak **antolatutako PLATER TIRAKETA, Gorlako Irubide zelaian.**

TIRO AL PLATO organizado por la *Sociedad Ollagorra*, en la campa Irubide de Gorla.

## 11:30 – 13:30



**Ipintza-II-ko patioan haurrentzako JOLAS PARKEA: superjumper, karrak, gaztelu puzgarriak eta abar.**

PARQUE DE JUEGOS INFANTILES en el patio del instituto Ipintza-II: superjumper, cars, castillos hinchables...

**Barraketan haurrentzat prezio bereziak izango dira.**
Precios especiales para niños en las barracas



Ekainak 9, astelehena

## 11:30

Udal Musika Bandaren **KALEJIRA.**

PASACALLE con la Banda Municipal de Música.

## 12:30

Udal Musika Bandaren **KONTZERTUA, Espoloian.**

CONCIERTO de la Banda Municipal de Música, en el Espolón.

Egitaraua

| | | |
|---|---|---|
| "LEITZAKO HERRIARI" | Martxa | J. Ortega |
| "A DISCOVERY FANTASI" | Suitea<br>• Introduction<br>• Bolero<br>• Rondeau<br>• Interumezzo e finale | B. Appermont |
| "ALMA DE DIOS" | Zartzuelako selekzioa | J. Serrano |
| "THE LION KING" | Soinu banda | E. John – H. Zimmer |
| "BERGARAKO ERESERKIA" | A. Gz. Chirlaque | |

*Zuzendaria:* Alfredo Gz. Chirlaque

## 16:30

**PILOTA PARTIDU interesgarriak** Udal Pilotalekuan.

Interesantes PARTIDOS DE PELOTA en el Frontón Municipal.



# Ekainak 9, astelehena

## 17:00 - 20:00



**JOLAS PARKEAren jarraipena, haurrentzat. Ipintza-II institutuko patioan.**

Continuación del PARQUE DE JUEGOS INFANTILES en el patio del instituto Ipintza-II..

## 18:00

**Behiekin JOLASAK,** Los Incansables **TXARANGAK animatuta, zezen plazan.**

JUEGOS con vaquillas en la plaza de toros, amenizados por la TXARANGA *Los Incansables.*

## Ondoren

Los Incansables **txarangaren KALEJIRA.**

PASACALLE con la txaranga *Los Incansables.*

## 22:30

**ROCK KONTZERTUA, Bideberrin,** Sorkun, Kokein, Eraso, Destrucción eta Goiko rock **taldeekin.**



CONCIERTO ROCK en Bideberri: con los grupos *Sorkun, Kokein, Eraso, Destrucción y Goiko rock.*

## 23:00

**Tarantella orkestrarekin DANTZALDIA, Espoloian.**

BAILE CAMP a cargo de la orquesta Tarantella, en el Espolón.



# Ekainak 10, asteartea

## 8:30

**KALEJIRA,** Los Incansables **txarangak alaituta, entzierroaren ibilbidetik zezen plazaraino.**

PASACALLE amenizado por la txaranga *Los Incansables* por el recorrido del encierro hasta la plaza de toros.

## 9:00



**Hirugarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili kalea eta Zezen plaza.**
**Segidan ENBOLATUAK,** Los Incansables **txarangak alaituta.**

Tercer ENCIERRO. Recorrido: Salida del garaje del Restaurante Gaspar, Barrenkalea, San Martin plaza, calle Bidekurutzeta, calle Ramon Mª Lili y Plaza de toros. Seguidamente EMBOLADOS amenizados por la txaranga *Los Incansables.*

## 11:00 - 20:00

**PENTEKOSTE JAIETAKO kartel lehiaketara aurkeztutako KARTELEN ERAKUSKETA, Udaletxeko arkupeetan.**

EXPOSICIÓN DE LOS CARTELES presentados al concurso DE FIESTAS DE PENTECOSTES, en el pórtico del Ayuntamiento.

## 11:30

**Egunean zehar kaleak alaituko dituzte** Xafre eta Zaharra **eta** Iosu eta Iokin **TRIKITILARI bikoteek eta** Los Incansables **TXARANGAk.**

**Durante todo el día amenizarán las calles** las parejas de TRIKITILARIS *Xafre eta Zaharra* y *Iosu eta Iokin* así como la TXARANGA *Los Incansables.*

## 11:30 - 13:30

**HERRI TRENAren ibilaldia, Fraiskozuri plazatik irtenda.**

Recorrido del TREN LOCAL, con salida desde la plaza Fraiskozuri.



## 12:30



HERRI KIROLEN ERAKUSTALDIA, **San Martin plazan. Partaideak: Jose Antonio Gisasola "Zelai" eta Miren Urkiola harrijasotzaileak; Fausto Mugerza eta Ugaitz Mugerza aizkolariak eta Joxe Lapazaran, lastoa bota, ingudea jaso eta abarretan.**

DEMOSTRACION de deporte rural en la plaza San Martín con los levantadores de piedra Jose Antonio Gisasola "Zelai" y Miren Urkiola; los aizkolaris Fausto Mugerza y Ugaitz Mugerza y lanzamiento de fardos, levantamiento del yunque..., por Joxe Lapazaran.

## 13:00

**KALEJIRA, trikitilariek lagunduta, San Martin plazatik hasita.**

PASACALLES con trikitilaris desde la plaza San Martin.



Ekainak 10, asteartea

## 14:30

**HERRI BAZKARIA,** Jardun elkarteak, Xamatz dantza taldeak eta Txosna batzordeak **antolatuta, San Martin plazan.**

COMIDA POPULAR en la plaza San Martin, organizado por Jardun, grupo de danzas Xamatz y la comisión de txosnas.



## 16:00

**Bazkalondoan, JOKOAK eta** Iraunkorrak **txarangaren emanaldia.**

En la sobremesa JUEGOS y actuación de la txaranga Iraunkorrak.

## 16:30

**PILOTA PARTIDU interesgarriak, Udal Pilotalekuan.**

Interesantes PARTIDOS DE PELOTA en el Frontón Municipal.

## 17:00-20:00

**HERRI TRENAren bira, Fraiskozuri plazatik irtenda.**

Recorrido del TREN LOCAL con salida desde la plaza Fraiskozuri.

# Ekainak 10, asteartea

**18:00**



**ENBOLATUAK, herriko koadrilentzat zezen plazan,** Los Incansables **txarangak alaituta.**

EMBOLADOS para CUADRILLAS en la plaza de toros, amenizado por la txaranga *Los Incansables.*

**Ondoren**

**KALEJIRA,** Los Incansables **txarangarekin.**

PASACALLE con la txaranga *Los Incansables.*

Xafre eta Zaharra **eta** Iosu eta Iokin **TRIKITILARI bikoteen eta** Los Incansables **TXARANGAren musika ekitaldiak egunean zehar.**

Actuación durante la jornada de las parejas de TRIKITILARIS *Xafre eta Zaharra* y *Iosu eta Iokin así como de* la TXARANGA *Los Incansables.*

**20:00-21:00 eta 22:30etatik aurrera**

**DANTZALDIA** Egan **taldearekin, San Martin plazan.**

BAILABLES con el grupo *Egan,* en la plaza San Martin.

**24:00**

**BITORIANATXOren igoera, San Martin plazan.**

Concentración en la plaza San Martin y SUBIDA DE BITORIANATXO.



# Ekainak 14, larunbata

## 14 de Junio, sábado

**12:00**

**XVIII.** Koldo Eleizalde **literatura lehiaketako SARI BANAKETA Zabalotegi aretoan.**




REPARTO DE PREMIOS del XVIII. Koldo Eleizalde literatura lehiaketa en Zabalotegi

# Ekainak 15, igandea

## 15 de Junio, domingo

**12:30**

**Musika Eskolako udaberriko KONTZERTUA.**

CONCIERTO de primavera de Musika Eskola.

# Ekainak 5, osteguna
## 5 de Junio jueves

### Eskola Kiroletako finalak

**FUTBOLA**

Benjaminak:..................................arratsaldeko 5,30etan
Alebinak:........................................arratsaldeko 5,30etan
LEKUA: IPINTZA FUTBOL ZELAIA

**ARETO FUTBOLA:**

Alebin neskak:...............arratsaldeko 6,15etan
LEKUA: IPINTZA INSTITUTUA

**SASKIBALOIA:**

Alebin mutilak...............arratsaldeko 5,15etan
Alebin neskak.................arratsaldeko 6etan
Benjaminak.....................arratsaldeko 6,45etan
LEKUA: SAN MARTIN IKASTETXEA



**ESKUBALOIA:**

Alebin neskak............arratsaldeko 5,15etan
Benjaminak.................arratsaldeko 6etan
Alebin mutilak............arratsaldeko 6,45etan
LEKUA: SAN MARTIN IKASTETXEA

Trofeoen banaketa: San Martin plazan, 8,15etan



# Ekainak 14, larunbata
## 14 de Junio, sábado

**10:00**

**XAKE azkarreko GIPUZKOAKO TXAPELKETA, Ipintza II institutuan, eta XAKEko adiskidetasun Kluben ZIRKUITUA, leku berean.**

CAMPEONATO DE GIPUZKOA DE AJEDREZ rápido, en Ipintza II y CIRCUITO DEL CLUB DE LA AMISTAD de ajedrez, en el mismo lugar.

**11:00**

**ATLETISMO FROGA KONBINATUAK, Agorrosingo atletismoko pistetan.**
**Egingo diren frogak hauek izango dira: atletismoa, luzera saltoa,' erreleboak: 60 m., 100 m., 1.500 m.**

PRUEBAS ATLETICAS COMBINADAS DE PROMOCIÓN, en las pistas de atletismo de Agorrosin. Las pruebas serán las siguientes: atletismo, salto de longitud, relevos: 60 m., 100 m., 1.500 m.

**17:00**

**XAKE azkarreko EUSKADIKO TXAPELKETA, Ipintza II institutuan eta XAKEko adiskidetasun Kluben ZIRKUITUA, leku berean.**

CAMPEONATO DE EUSKADI DE AJEDREZ rápido, en Ipintza II y CIRCUITO DEL CLUB DE LA AMISTAD de ajedrez, en el mismo lugar.

# Ekainak 15, igandea

## 15 de Junio, domingo

**10:00**

**TALDEKAKO XAKE TXAPELKETA,** "XXXII Bergara Hiria Saria, **Ipintza II institutuan.**

CAMPEONATO DE AJEDREZ POR EQUIPOS, "XXXII Trofeo Villa de Bergara" en Ipintza II.

**12:00**

**Euskal Selekzioa osatuko duten jokalariak hautatzeko XAKE lehiaketa konbinatua, Ipintza-II institutuan.**

Combinado ajedrecístico para elegir los componentes de la Selección Vasca, en Ipintza-II.

**16:30**

**TXIRRINDULARI LASTERKETA: 1.eta 2. mailako kadeteen** LXVII San Antonio Saria, Lokatza ziklismo eskola**k antolatuta.** **(Ibilbidea esku programan).**

CARRERA CICLISTA: "LXVII Premio San Antonio para cadetes de 1er y 2º año, organizado por *Lokatza ziklismo eskola.* (Ver recorrido en el programa de mano).

**17:00**

**XAKE partida azkarren TXAPELKETA IREKIA, Ipintza II institutuan (Miguel Altuna berrian).**

TORNEO OPEN de partidas rápidas de ajedrez, en el instituto Ipintza II

## KIROL EGITARAUA Programa deportivo

**Jai Batzordeak ez du bere gain hartzen jaiegun hauetan gerta daitezkeen kalteen erantzukizunik.**

**La Comisión de festejos no se hará responsable de los daños que puedan producirse durante la celebración de estas fiestas.**









URKAN diseinua

ETXEBERRIA

*Bitxitegia*
*Erlojutegia*
*Antzinako hormako erlojuen Konponketa eta zaharberritzea*

*Gure bitxitegi tailerra*
*Edozein bitxi mota itxuraldatzen dugu*

*Joyería*
*Relojería*
*Reparación y Restauración de relojes antiguos de pared*

*Taller propio de joyería*
*Se transforman todo tipo de joyas*




Bidekurutzeta, 16 - Tel. 943 762 394 - 20570 BERGARA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Fraizkozuri, nº 4
Telefonoak: 943 761340 / 761341
Faxa 943 760685
20570 Bergara

Matxiategi, nº 5
Telefonoak: 943 765741 / 765742
Faxa 943 760802
20570 Bergara

MULTIOPTICAS




OAKLEY
DRAGON
DOLCE & GABBANA
arnette
Ray-Ban
Christian Dior
bollé
GIORGIO ARMANI
CK
KILLER LOOP
MOSCHINO
Carolina Herrera
EVANEY
ROCHAS PARIS

✆ 943 76 15 75 • BERGARA

1.a ZERBITZU OPTIKOETAN








# BERGARA 2003:

# HIRU URTEMUGA

# HANDI

# Irala Aumategi, Ignazio

## 1653-1672




## "Fr. Jose de Jesus y Maria"

Jaunaren mirabea, Napoliko erresumako frantziskotar oinutsen San Pedro Alcantarako kustodiako lehen kimua izan zen. Bergaran jaio zen 1653ko abuztuaren 13an, eta Ignazio jarri zioten izena. Pedro Irala eta Maria Aumategi izan zituen gurasoak.

Itsas armadako kapitain jeneral batek 12-14 urte bitarteko lau euskaldun eskatu zituen Napolitik, morroi lanetan aritzeko, eta haietako bat gure bergarar gaztea izan zen. Euskal Herritik Madrilerako bidean gaztelaniaz hitz egiten ikasi zuen, eta Bartzelonara iristerako bazekien katalanez ere. Mutil argia zen, beraz.

Napolin, bere apaltasun handiagatik nabarmendu zen. Inoiz ez zen lanarengatik kexatzen. Egiten zuen guztia, espirituz edo gorputzez, Andre Mariaren loriari eskaintzen zion. Mundutik erretiratu eta Napoliko frantziskotar oinutsen komentuan sartu zen, frai Jose de Jesus y Maria izenaz. Komentukoek asko maite zuten bere dohain ugarien ondorioz: gogoz ikasten zuen eta liluratuta zeuzkan denak, aurrerapen izugarriak lortzen zituelako. Gonbitoka eta eztulka hasi eta odola botatzen zuenez, Grumoko Santa Katalinaren komentura eraman zuten, Napolitik sei miliara. Hango apaizek, gaixorik zegoela ikusita, aingeruak bezain garbia zen serafin hura artean bere altzora ez eramateko eskatu zioten Jaunari. Iralaren gaixotasuna larriagotu egin zen, ordea, eta *"Misericordias Domini in eternum cantabo, Gloria Patri et Filio"* esan ondoren, 1672an hil zen, 19 urte zituela. Bedeinkatua izan zen bere bizitza osoan, ez baitzuen inoiz bekatu larririk egin.

*Oharra: Argazkian azaltzen den jaiotza-data ez da zuzena.*





# Eleizalde Breñosa, Koldo

## 1878-1923



1878ko ekainaren 9an jaio zen. Ikasketak Bergaran hasi ondoren, batxilergoaren lehen urteak aita domingotarren ikastetxean egin zituen eta azken urteak Zaragozako jesuiten ikastetxean. Zientzietako lizentzia egiten hasi zen hiri hartako unibertsitatean, eta ondoren Madrilen bukatu zituen ikasketak, 1899ko ekainean.

Gasteizko institutuko Matematika katedra lortu zuen oposizio bidez, eta han jardun zuen lanean Bizkaiko Aldundiak irakaskuntzako ikuskatzaile izendatu zuen arte. Izugarrizko lana egin zuen auzo-eskolak sortzen eta eskola horietarako testuak prestatzen.

Bizitza gehiena jaioterritik kanpo eman zuen arren, bere lanetan behin eta berriro gogoratzen eta aipatzen ditu bai "**Berrgara**" —hala idazten zuen beti— bai bere herriko euskara berezia. 1918tik aurrera euskaltzain osoa eta Eusko Ikaskuntzako kide osoa izan zen.

Langile nekaezina zen, uste sendokoa, eta izaera gogor eta hezigaitza zuen, bai eta Euskal Herriaren alde eskuzabal eskainitako erro sakoneko idealak ere. Euzko Alderdi Jeltzaleko kide izan zen gaztetandik, eta Sabino Arana Goiriren jarraitzaile sutsua, bat baitzetorren bete-betean haren doktrina, ildo eta ideologiarekin. Artikulu ugari idatzi zituen aldizkari nazionalistetan eta hainbat epaiketa eta espetxeratze jasan zituen. Aranaren ondoren, nazionalismoaren ideologo nagusia izan zen Engrazio Arantzadi "Kizkitza"rekin batera, eta nazionalismo posibilista izeneko bidea sortu zuen, muturreko independentismoaren eta erregionalismoaren artekoa, alegia. 1916an Lausanan egindako Nazionalitateen Biltzarrean parte hartu zuen eta ondoren "*Países y razas*" izeneko liburua idatzi zuen. Liburuak eragin handia izan zuen garai hartako nazionalismoan.

Lanetik kanpoko denbora ia guzti-guztia euskal kultura lantzen eta sustatzen ematen zuen, euskara bultzatzen bereziki, euskal nazionalitatearen bereizgarri nagusitzat jotzen baitzuen gure hizkuntza.

Tematuta zegoen euskararen erabilera Euskal Herri osora zabaltzearekin eta interes handia zuen, nazionalitateen teoriari jarraiki, horren aplikazio praktikoan eta lortzeko bidean. 1918an Bilbon gure hizkuntzari buruz emandako hitzaldia —*La lucha por el idioma propio*— eta Eusko Ikaskuntzak urte berean Oñatin egindako Biltzarrean "*Metodología para*

*la restauración del euskera*" izeneko hitzaldian esandakoak horren guztiaren erakusgarri garbiak ditugu. Euskara leheneratu beharra zegoela uste zuen, bi alorretan nagusiki: gizartean eta literaturan. Bere ustez, aurreko belaunaldietako goiko klaseek euskararen erabileraren norabidea aldatu egin zuten, "herriaren hizkuntza" behar zuena "herriaren hizkera" bihurtu baitzuten, eta hortaz, euskara kulturaren eta harremanen alorretara eraman behar zela aldarrikatu zuen.



Koldo Eleizaldek idatzitako lan ugarien artean ondokoak nabarmentzen dira: "*Raza, lengua y nación vasca*" (1911), "*Morfología de la conjunción simétrica vasca*" (1913) eta "*Voces toponímicas*" (hitzak bildu eta fitxatan sailkatu zituen). Aldizkari askotako kolaboratzailea izan zen: *RIEV* (Revista Internacional de Estudios Vascos), *Euskal-Esnalea*, *Euzkadi*koa... Azken horretan Kempisen "*Kristoren Antz-Bidea*" euskaratu zuen.



## Laskurain Olano, Bonifazio

### 1882-1978



Bonifazio Laskurain, Bergaran "Boni" izenez ezagunagoa, Iruran (Gipuzkoa) jaio zen 1882ko maiatzaren 6an. 1890. urte inguruan, Bonifaziok 8 bat urte zituenean, bere familia Billabonara joan zen bizitzera, bere aita Subijana oihal lantegian hasi zelako lanean. Oraindik 14 urte bete gabe zituela, bera ere "laguntzaile" gisa hasi zen lanean enpresa berean. Goizeko 5etatik arratsaldeko 8ak arte egiten zuen lan, bazkaltzeko ordu erdiko atsedenaldiarekin, hau da, eguneko 13,30 lanordu sartzen zituen eta horien truke 3 erreal jasotzen zituen egunero. A ze garaiak haiek!

Garai honetan, Bonifaziok piccoloa jotzen zuen Billabonako Bandan. Bere anaia Felipe, berriz, oso klarinete-jole ona zen eta Tolosaraino joaten zen Blas Alberdirekin txistua jotzen ikastera. Anai honek irakatsi zizkion gure Bonifaziori txistuaren lehen urratsak.



Ildefonsa Txarroalde Gorosabelekin ezkondu zen 1909ko ekainaren 23an Amasako elizan. Emakume honen familiak taberna bat zeraman Bonifazioren sendia bizi zen etxe azpian. Bi seme izan zituen bikoteak: Justino eta Felix. Zoritxarrez, emakume hau oso goiz hil zen.



Argazkian Bonifazio Laskurain, Justino eta Felix bere semeak eta Julian Etxaniz

Bonifaziok gehiago ikasi nahi zuen txistuaren inguruan, eta bere anaiak ezin ziola erakutsi kontuan hartuz, jaiegunetan Donostiaraino joaten zen Eusebio Basurkorengana. Hurrengo urtean, 1911n, Isidro Ansorenaren klaseetara joaten hasi zen.

1916. urtean Bergarara etorri zen bizitzera, eta Ubillos oihaltegian hasi zen lanean.

Hemen, bere emazte zenaren ahizpa batekin ezkondu zen. Maria deitzen zen, eta garai hartan, ezagutzen ez diren arrazoiengatik, Arrasaten bizi zen. Bigarren emazte honek beste bi seme-alaba eman zizkion: Mertxe, moja joan zena, eta Juanzito, 6 urterekin hil zena.

Bonifazio Laskurainek ikasle aipagarriak izan zituen, eta guztien gainetik bere semea Justino nabarmendu zen. Fenomeno ukaezina izan zen hau, baina bere edade hoberenean hil zen. "Boni"k bigarren mailan jotzen zuen Justinorekin, bere semearen balio handiagoaren onarpen argiaren adierazpen gisa. Bergarako Bandak aurkezten zen lehiaketa guztietan sari onenak eskuratzen zituen. Eta asko izan ziren. Hiru jole zituen Banda izan zen hasieran. Eta horrela aurkeztu zen bederatzi lehiaketa jarraituetan, Laskuraindarrek —Justino lehen txistulari, Boni bigarren txistulari eta bere beste semea Felix atabal jole gisa— lehen sariak eskuratu zituzten. Azken saria 1929. urtean eskuratu zuten, Bilbon, derrigorrezko pieza gisa Gorosarriren "Naste-borraste" interpretatuz. Autoreak, danbolina jotzea beharrezkoa zuen lan bat idatzi nahi izan zuen. Izan ere, instrumentu hori jotzea ezinbestekoa zela pentsatzen zuen, baina geroz eta gehiago alde batera uzten ari zela kexatzen zen, euskal txistulariaren azken irudiaren elementu osagarri soil bihurtuz.

Agian danbolina jotzeko eskakizuna zela eta, edo agian Bergarako Bandak sari guztiak eskuratzen zituelako, bakarrik aurkeztu ziren Bilboko azken lehiaketa honetara. Eta Gorosarri autoreak, epaimahaiko kide zenak, modu berezian zaindu zuen bergararrek danbolina eskatutako moduan erabiltzen ote zuten. Aho batez eman zieten lehen saria, nola ez!.

Urte batzuk geroago, 1931n, Julian Etxaniz silbotea jotzeko prestatu ondoren, lau jolerentzako lehiaketa batera aurkeztu ziren Donostian. A seriean lehiatu ziren, Kursaalean, Errenteria, Tolosa eta Sestaoko bandekin. Emaitza, Bergara eta Errenteria artean banatutako lehen saria izan zen. Garaipen biribila eta entzutetsua izan zen hau, Errenteriako banda oso ospetsua zelako eta haren beldur zirelako.

Askoz ere geroago, 1950. urtean, Justino hilda zegoela eta Boni lehen txistulari, Joseba Laborda bigarren txistulari, Julian Echaniz silbote jole eta Matias Azcarate atabal jole zirenean, kategoria gorenean lehiatu ziren berriz ere. Kanporaketetan borroka egin behar izan zuten Zarautz eta Legazpiko bandekin Donostiako Groseko frontoian. Eta berriz eskuratu zuten lehen saria. Denok ados egongo gara Bergarako Txistulari Bandaren historia parekatzea ia ezinezkoa dela pentsatzean.

1958. urtean, Txistularien Elkarteak Ohorezko Lehendakari izendatu zuen aho batez bere Urteko Batzarrean.

1961. urtean, Boni "Luis Urteaga" lehiaketara aurkeztu zen "Txistularia-Ertillari" zortzikoarekin, eta bigarren saria irabazi zuen txapelketa handi honetan.

1962ko azaroaren 26an omenaldia egin zitzaion Bergaran, lehen txistulari eta Elkarteko Ohorezko Lehendakari honi. San Pedro Parroki Elizan ospatutako mezaren ostean, okasio horretarako antolatutako jaialdia ospatu zen San Martin Agirre plazan. Lehenik, dantza talde gazte batek hartu zuen parte dantza-sorta ederra eskainiz. Ondoren, Miguel Gonzalez Bastida jaunak prestatutako eta zuzendutako Bergarako Musika Bandak hartu zuen parte. Eta amaitzeko, txistulari bandak omenduak zuzendutako kontzertua eskaini zuen, berak idatzitako obrak interpretatuz. Kontzertu hori ZORTZIKOarekin hasi zen, eta ondoren MINUETO ederra eta SANTA CECILIA biribilketa ezaguna jo ziren, Ansorenaren *Agur Jaunak* obrarekin amaituz. Interpretazio hauek oso txalotuak izan ziren. Taldeari jo zizkioten txaloak, baina, bereziki, interpretatu ziren melodia ederren egile zen zuzendaria txalotu zen.

Bonifazio Laskurain 1978ko urriaren 9an hil zen Bergaran. Heriotza honen ondoren, Txistulari aldizkariak ia osorik eskaini zion bere 96. alea, urte bereko laugarren hiruhilekoari zegokiona. Bertan argitaratu ziren beste idatzi batzuen artean, Javier Hernandez Arsuagak egindakoa azpimarratuko dugu:

*«"En el correr de mi vida de txistulari ha sido mi ilusión laborar en pro de una ampliación del repertorio de música de Txistu, y si bien nunca he tenido una mayor preparación musical, guiado más bien por el impulso de mis sentimientos, he dedicado mis ratos de ocio a recoger el producto de mi simple y limitada capacidad creadora."*

*Con estas expresivas palabras define claramente Bonifacio Lascurain su trayectoria en el campo de la creación, guiado por la irresistible fuerza elemental que su talante musical innato le impone como una expansión más de su entrega al noble y maravilloso arte de su oficio txistulari».*





# Irala Aumategi, Ignacio de 1653-1672

## "Fr. José de Jesús y María"

Siervo de Dios, primera planta y fruto de la Custodia de San Pedro de Alcántara, de Franciscanos descalzos del Reino de Nápoles. Nació en Bergara el 13 de Agosto de 1653, se le puso por nombre Ignacio, hijo de D. Pedro de Irala y Dª María de Aumategui.

Un Capitán General de la Armada pidió de Nápoles cuatro vasco-navarros de 12 á 14 años para pajes: fue uno de ellos este joven bergarés. En su viaje de aquí a Madrid aprendió a hablar el castellano, y al llegar a Barcelona sabia el catalán; era muy despejado.

Llegó a Nápoles, donde era admirado de todos por su humildad, sin quejarse jamás de los trabajos. Todo cuanto obraba, espiritual y corporalmente, lo enderezaba a la gloria de la Virgen María. Se retiró del mundo al convento de Franciscanos descalzos de Nápoles en que tomó el nombre de Fr. José de Jesús y María. En la profesión fue amado de todos por sus virtudes: estudiaba con gusto y era admirado por sus prodigiosos adelantos. Por habérsele presentado los vómitos de sangre y la tos le llevaron al convento de Santa Catalina de Grumo, a seis millas de Nápoles. Al verle enfermo los religiosos piden a Dios no les privase de aquel serafín de vida de pureza angelical. Se agravó en su enfermedad, y diciendo *"Misericordias Domini in eternum cantabo, Gloria Patri et Filio"*, murió en 1672 a los 19 años de edad. Fue bendito en toda su vida, pues no tuvo en toda ella culpa mortal.

# Eleizalde Breñosa, Koldo de

## 1878-1923



Inició sus estudios en Bergara cursando parte del Bachillerato en el Colegio de los PP. Dominicos y terminándolo en el de los jesuitas de Zaragoza, en cuya Universidad inició la Licenciatura de Ciencias, terminándola en la de Madrid, en junio de 1899.

Obtuvo por oposición la Cátedra de Matemáticas del Instituto de Vitoria hasta que la Diputación de Bizkaia le nombró Inspector Provincial de Enseñanza, resaltando su enorme labor desarrollada en la creación de Escuelas de Barriada, a las que proporcionaba textos escritos por él mismo.

Aunque pasó gran parte de su vida fuera de su pueblo natal, en sus trabajos recuerda y menciona

continuamente a "**Berrgara**" que lo escribía siempre con dos erres, y a su peculiar euskera dialectal. Figuró desde su inicio en 1918, como miembro de número de la Academia de la Lengua Vasca y de la Junta Permanente de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.

Trabajador incansable, de profundas convicciones respaldadas por un carácter fuerte e indomable y con ideales bien cimentados, ofrecidos generosamente al servicio de Euskadi. Afiliado desde su juventud al Partido Nacionalista Vasco, fue uno de las más entusiastas seguidores y discípulos de Sabino Arana y Goiri, con cuya doctrina, directrices e ideología se identificó plenamente. Escribió muchos artículos en la prensa nacionalista y sufrió varios procesos y encarcelamientos. Junto con Engracio de Aranzadi "Kiskitza", fue el principal ideólogo del nacionalismo post-Aranista, constituyendo una tercera vía entre el independentismo radical y el regionalismo, identificado como de nacionalismo posibilista. Con ocasión de su participación en la Conferencia de Nacionalidades de Lausana, en 1916, escribió un libro titulado *"Países y Razas"*, que causó un profundo impacto en el nacionalismo de la época.

El tiempo que le dejaba libre su profesión, puede decirse que lo dedicó íntegramente al desarrollo y promoción de la Cultura Vasca y en especial del euskera, como primordial característica diferencial de la nacionalidad vasca.

Su obsesión predominante fue extender el uso del idioma a lo largo y ancho de Euskadi, interesándole, de acuerdo con la teoría de las nacionalidades, su aplicación práctica y la forma de lograrlo. Sus conferencias sobre *"La lucha por el idioma propio"* pronunciadas en Bilbao en 1918 y sus lecciones sobre *"Metodología para la Restauración del euskera"* explicadas en el Congreso de Estudios Vascos de Oñate del mismo año, son buena prueba de ello. Le preocupaba su restauración, y ésta la contemplaba desde dos puntos de vista: el social y el literario. A su entender, las clases altas de la sociedad que les precedieron, habían desviado el curso de la utilización del euskera, convirtiendo lo que debió ser "lengua del pueblo" en "habla del pueblo". Propugnaba elevar el euskera a idioma con rango de vehículo de cultura y relación.

De muchas obras escritas por Koldo Eleizalde, pueden citarse como más importantes: *"Raza, Lengua y Nación Vasca"* (1911), *"Morfología de la conjunción sintética vasca"* (1913) y *"Voces toponímicas"* (Recogida y fichaje). Colaboró intensamente en numerosas revistas, como: Riev (Revista Internacional de Estudios Vascos), Euskal-Esnalea, Euzkadi... Y publicó en esta última la traducción al euskera del Kempis-Imitación de Cristo, con el título *"Kristoren Antz-Bidea"*.

## Lascurain Olano, Bonifacio

### 1882-1978

Bonifacio Lascurain, más conocido en Bergara como "Boni", nació en Irura (Gipuzkoa) el día 6 de mayo de 1882. Hacia 1890, cuando Bonifacio contaba con unos 8 años, su familia se traslada a Billabona, pues su padre empieza a trabajar en la empresa de paños Subijana. Sin cumplir los 14 años empieza a trabajar en la misma empresa como "pinche". Trabajaba desde las cinco de la







mañana hasta las ocho de la tarde, disponiendo de media hora libre para realizar un almuerzo, por lo tanto 13,30 horas de trabajo diario, por lo que le pagaban 3 reales diarios. ¡Vaya tiempos aquellos!

En este tiempo Bonifacio tocaba el flautín en la Banda de Billabona. Su hermano Felipe —muy buen clarinetista— acudía a Tolosa a aprender a tocar el txistu con Blas Alberdi. Este hermano fue quien le enseñó los primeros pasos en el txistu a nuestro Bonifacio.

El 23 de junio de 1909, en la iglesia de Amasa contrae matrimonio con Ildefonsa Txarroalde Gorosabel, nacida en Irura y regentando su familia un bar en los bajos donde vivía la familia de Bonifacio. Con esta mujer tuvo dos hijos: Justino y Felix; desgraciadamente esta mujer falleció muy pronto.

Bonifacio quería aprender más sobre el txistu, y teniendo en cuenta que su hermano no podía enseñárselo, los días festivos se traslada hasta San Sebastián donde Eusebio Basurko. Al año siguiente, en 1911, comienza a tomar clases de Isidro Ansorena.

El año 1916 se traslada a Bergara y comienza a trabajar en la pañería de Ubillos, casándose con una hermana de su mujer fallecida, de nombre María, que por aquel tiempo —por razones que desconocemos— residía en Mondragón. Esta segunda mujer le dio dos nuevos hijos: Mertxe, que ingresa como monja, y Juanzito, que muere a la edad de 6 años.

Bonifacio Lascurain, tuvo a su lado discípulos notables; y sobre todos ellos, su hijo Justino, indiscutible fenómeno, muerto en la mejor edad. Con Justino tocaba "Boni" de segundo, en un reconocimiento paladino de la valía superior de su hijo. En cuantos concursos se presentaran, obtenía la Banda de Bergara los mejores premios. Y fueron muchos.

Empezaron como Banda de tres ejecutantes. Así, en nueve concursos seguidos, los Lascurain (Justino de primero, Boni de segundo, y su otro hijo Félix, de atabalero) obtuvieron los primeros premios. El último en el año 1929, en Bilbao, interpretando, como obra obligada "Naste-borraste" de Gorosarri. El autor quiso escribir una obra en que fuera necesario tocar el tamboril pues se quejaba de que los txistularis iban abandonando, cada vez más, este instrumento de ejecución tan esencial, convirtiéndolo sólo en elemento que completaba la estampa final del txistulari vasco.

Quizá por esta exigencia del tamboril o quizá porque la Banda de Bergara se había convertido en acaparadora de todos los premios, se presentaron solos en el último concurso, en Bilbao; y el autor Gorosarri, que formaba parte del Jurado, vigiló de una manera especial si los bergareses usaban o no el tamboril en la forma exigida. Les dieron –¡como no!– el primer premio por unanimidad.

Después, el año 1931, habiendo preparado en el silbote a Julián Echániz, lucharon en la serie A, de cuatro ejecutantes, en San Sebastián, en el Kursal, con las bandas de Rentería, Tolosa y Ses-

tao. El resultado fue un primer premio repartido entre Bergara y Rentería. Triunfo rotundo y sonado pues la de Rentería era extraordinariamente famosa y temida.

Mucho más tarde, en el año 1950, muerto ya Justino, y con Boni de primer txistulari, Joseba Laborda de segundo, Julián Echániz de silbote y Matías Azcárate de atabalero, concursaron de nuevo en la categoría máxima, después de unas reñidas eliminatorias, con las Bandas de Zarauz y Legazpia, en el Frontón Gros, de San Sebastián. Y otra vez el primer premio. Supongo que estaremos todos de acuerdo en que el historial de la Banda de Txistularis de Bergara es poco menos que imposible de mejorar.

El año 1958, la Asociación de Txistularis en su Asamblea Anual, le nombra por unanimidad Presidente Honorario de la misma.

El año 1961, Boni presenta al Concurso "Luis Urteaga" el zortziko "Txistularia-Ertillari" con la que obtiene el 2° Premio de este gran certamen.

El 26 de noviembre de 1962 se celebró en Bergara el homenaje a su querido primer txistulari y Presidente Honorario de la Asociación. Tras la misa celebrada en la Iglesia Parroquial de San Pedro, en la Plaza de San Martín de Agirre se desarrolla el festival preparado al efecto. En primer lugar, actuó un joven grupo de danzas, que ejecutó una variada selección, muy decorosamente. Acto seguido, actuó la Banda de Música de Bergara, preparada y dirigida por D. Miguel González Bastida. Y, para terminar, el conjunto de txistularis interpretó un concierto dirigido por el homenajeado y a base de obras suyas. Así, comenzaron con el ZORTZIKO, para pasar al precioso MINUETO y a la conocida biribilketa SANTA CECILIA, para terminar con el Agur Jaunak, de Ansorena. Estas interpretaciones fueron aplaudidas frenéticamente. Se aplaudía al conjunto, pero principalmente se aplaudía al director y autor de las preciosas melodías interpretadas.

Tras la muerte de Bonifacio Lascurain acaecida el 9 de octubre de 1978 en Bergara, de la revista *Txistulari* n° 96 correspondiente al 4° trimestre del mismo año, dedicada prácticamente a su memoria, entre otros escritos podemos destacar el realizado por Javier Hernández Arsuaga, donde destaca:

*«"En el correr de mi vida de txistulari ha sido mi ilusión laborar en pro de una ampliación del repertorio de música de Txistu, y si bien nunca he tenido una mayor preparación musical, guiado más bien por el impulso de mis sentimientos, he dedicado mis ratos de ocio a recoger el producto de mi simple y limitada capacidad creadora."*

*Con estas expresivas palabras define claramente Bonifacio Lascurain su trayectoria en el campo de la creación, guiado por la irresistible fuerza elemental que su talante musical innato le impone como una expansión más de su entrega al noble y maravilloso arte de su oficio txistulari».*






**Hornitu zure etxea etorkizuneko komunikazioaz.**

Euskaltel Leihoari esker, izan Telefonia Finkoa, Internet eta Kable bidezko Telebista produktu eta puntu bakar batean: zure etxean.

Jaso ezazu informazioa 015 telefono-zenbakian

Euskaltel
batzen gaituena



## Bergarako Udalak
## jai zoriontsuak opa dizkizue.

### El Ayuntamiento de Bergara
### os desea felices fiestas.

**BERGARAKO UDALA**